



232 Eragiketa lotuak. Paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak.

I. GAI OROKORRAK

1) ERAGIKETA LOTUAK

Eragiketa lotuen aurrean gaude eragiketa horiek egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoen artean **lotura maila** bat dagoenean. Lotura hori, nagusiki, egoera hauetakoren batean oinarritzen da:

- Elkarren artean lehen, bigarren edo hirugarren mailara arteko ahaidetasun harremana izatea.
- Enpresa talde bereko kide izatea.
- Sozietate ezberdinek administratzaileak partekatzea.
- Sozietateek erreferentziazko akziodun komunak izatea.

Lotura motei dagokienez, 2/2014 Foru Arauaren 42.3 artikulua araberan, honako hauek izango dira pertsona edo entitate lotuak:

a) Entitate bat eta bertako bazkide edo partaideak.

b) Entitate bat eta haren kontseilari edo administratzaileak, beren eginkizunak betetz jasotzen dituzten ordainsariei dagokienez izan ezik.

c) Entitate bat eta haren bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak, 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen araberan eraturako izatezko bikoteko bikotekideak, edo ahaidetasun harreman batek lotutako pertsonak. Harreman hori zuzeneko zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasuneko, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoa, hirugarren mailara artekoa betiere.

d) Talde bereko bi entitate.

e) Entitate bat eta beste entitate bateko kontseilari edo administratzaileak, baldin eta bi entitateak talde berekoak badira.



- f) Bi entitate, baldin eta lehenengoak, gutxienez, 100eko 25eko zeharkako partaidetza baldin badu bigarrenaren kapital sozialean edo haren funts propioetan.
- g) Bi entitate, baldin eta haietako bazkideek edo partaideek edo haien ezkontideek, 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izatezko bikoteko bikotekideek, edo ahaidetasun harreman batek lotutako pertsonak, zuzenean edo zeharka, gutxienez 100eko 25eko partaidetza baldin badute kapital sozialean edo funts propioetan. Harreman hori zuzeneko zein zeharkakoa izan daiteke, odolkidetasuneko, ezkontza bidezkoa edo izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoa, hirugarren mailara artekoa betiere.
- h) Egoitza Espainiako lurraldean duen entitate bat eta hark atzerrian dituen establezimendu iraunkorrak.
- i) Espainiako lurraldean egoitzarik ez duen entitate bat eta lurralde horretan dituen establezimendu iraunkorrak.
- j) Talde bereko bi entitate, talde horrek sozietate kooperatiboen taldeen araubidean tributatzen duenean.

Lotura hori bazkide edo partaideen eta entitatearen arteko harremanaren arabera definitzen bada, partaidetzak 100eko 25ekoa edo handiagoa izan beharko du. Administrazioarekiko buruz egindako aipamenak zuzenbidezkoak nahiz izatezko administrazioarekiko eragiten die.

2) AURKEZTERA BEHARTUAK

* **232 eredu aurkeztera** eta, beraz, «eragiketa lotuen eta paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketa eta egoeren informazioa» ematera behartuta daude sozietateen gaineko zergaren zergadunak eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak, bai eta atzerrian eratuta egonik Gipuzkoako Lurralde Historikoan errentak esleitzeko araubidean ari diren entitateak ere, baldin eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia aplikagarri bazaie eta pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketen edo paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketen eta egoeren berri eman behar badute, hurrengo apartatuetan xedatutako eran.



* Zergadun horiek behartuta egongo dira **«pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak»** izeneko koadroa betetzera, baldin eta haien eragiketen zenbateko osoak 36.000 euroko merkatu balioa gainditzen badu.

36.000 euroko muga horretan BEZa ez da sartzen, eta pertsona edo entitate lotu bakoitzarekin egindako eta metodo berberarekin baloratutako mota bereko eragiketen multzoari dagokio.

Ez da egongo informazioa emateko obligazioa eragiketak honako hauek direnean:

a) Zerga baterakuntzako talde berean integratutako entitateen arteko eragiketak, baldin eta taldeak Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren VI. tituluko VI. kapituluan ezarritako araubidea hautatu badu.

b) Interes ekonomikoko taldeek, interes ekonomikoko taldeei buruzko apirilaren 29ko 12/1991 Legean ezarritakoari jarraituz, eta aldi baterako enpresa elkarteek, maiatzaren 26ko 18/1982 Legean, enpresa taldeen eta aldi baterako elkarteen eta eskualdeko industria garapenerako sozietateen zerga araubideari buruzkoan arautu eta dagokien erregistro berezian inskribatutakoek, beren kideekin edo Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren VI. tituluko VI. kapituluan ezarritako araubidea hautatu duen zerga baterakuntzako talde bereko beste entitate batzuekin egiten dituzten eragiketak.

c) Baloreak saltzeko edo erosteko eskaintza publikoen esparruan egiten diren eragiketak.

d) Espainiako Bankuak onartutako babes sistema instituzional batean integratutako kreditu entitateek beren artean egindako eragiketak, baldin eta eragiketa horiek zerikusia badute babes sistema instituzional horrek araudi aplikagarrian ezarrita dauden beharkizunak betetzearekin.

* **«Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak, aktibo ukiezin jakin batzuen errentak murrizten diren kasuan»** izeneko koadroari dagokionez, zergadunak behartuta egongo dira hura betetzera, baldin eta, pertsona edo entitate lotuei ukiezin jakin batzuk lagatzeagatik eta, horren ondorioz, errentak lortzeagatik,



aipatutako murrizketa aplikatzen badute, hain zuzen ere Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 37. artikuluan eta hogeita bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa.

Kasu honetan eskatzen den informazioa eman beharko da zenbatekoa edozein dela ere, eta informazioa eman beharretik salbuesten duten arrazoiak, artikuluko honen 2. apartatuan jasotakoak, ez dira inola ere aplikagarriak izango.

* **Zergadunak behartuta egongo dira «Paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak» izeneko koadroa betetzera**, paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeetan kokatutako pertsona edo entitateekin eragiketak egiten dituztenean, edo, bestela, herrialde edo lurralde horietan baloreak dituztenean, zenbatekoa edozein dela ere.

Beraz, «Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak, aktibo ukiezin jakin batzuen errentak murrizten diren kasuan» eta «Paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak» taulak, horietan aipatutako inguruabarrak gertatzen direnean osatu behar dira, zenbatekoa edozein dela ere.

3) AURKEZTEKO EPEA

Eman beharreko informazioari dagokion zergaldia amaitu ondorengo hamar hilabeteak bukatu eta hurrengo hilean aurkeztu beharko da eragiketa lotuen eta paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketen eta egoeren 232 eredu informatiboa. Beraz, zerga ekitaldia abenduaren 31n bukatzen duten sozietateek hurrengo urteko azaroan aurkeztu beharko dute 232 ereduak.

4) AURKEZTEKO ERA ETA PROZEDURA

Aipatutako 232 ereduak formatu elektronikoan baino ez da egongo eskuragarri, eta bide telematikoz aurkeztu beharko da.

Aurkezpen elektronikoak Internet bidez egingo da, ZERGABIDEA plataforma erabiliz.

5) MERKATUKO BALIO NORMALA KALKULATZEKO METODOAK



Merkatuaren balioa zehazteko, **bost metodo** arautzen dira eta horietako edozein aplikatu daiteke:

- Prezio libre alderagarriaren metodoa.
- Kostu gehituaren metodoa.
- Birsalmenta prezioaren metodoa.
- Eraitza banatzeko metodoa.
- Eragiketa guztien marjina garbiaren metodoa.

Balio hori kalkulatzeko ezin badira aurreko metodoak aplikatu, oro har onartutako beste metodo eta teknika batzuk erabili ahal izango dira, **lehia askearen printzipioa** errespetatzen badute.

Prezio libre alderagarriaren metodoa:

Pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketa batean ondasun edo zerbitzu batek duen prezioa eta pertsona edo entitate independenteen arteko eragiketa batean ondasun edo zerbitzu berdina edo antzeko batek pareko zirkunstantzietan duena alderatzen dira. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.

Kostu gehituaren metodoa:

Ondasunaren edo zerbitzuaren eskurapen balioari edo produkzio kostuari gehitu egiten zaio pertsona edo entitate independenteekin egindako eragiketa berdinetan edo antzekoetan ohikoa den marjina, edo halakorik ezean, pertsona edo entitate independenteek pareko eragiketei aplikatzen dietena. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.

Birsalmenta prezioaren metodoa:

Ondasun edo zerbitzuaren salmenta prezioetik kendu egiten da birsaltzaileak pertsona edo entitate independenteekin egindako eragiketa berdinetan edo antzekoetan aplikatzen duen marjina, edo halakorik ezean, pertsona edo entitate independenteek pareko eragiketei aplikatzen dietena. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.



Emaitza banatzeko metodoa:

Eragiketa bat edo gehiago batera egiten dituen pertsona edo entitate bakoitzari egozten zaio eragiketa horretan edo horietan lortutako emaitza osoaren zatia, pertsona edo entitate independenteek antzeko egoeretan adostuko lituzketen baldintzak egoki biltzen dituzten irizpideak erabiliz.

Eragiketa guztien marjina garbiaren metodoa:

Pertsona edo entitate lotu batekin egindako eragiketei egozten zaie zergadunak, edo hirugarren batzuek, pertsona independenteen arteko eragiketa berdinetan edo antzekoetan lortuko zuten emaitza garbia, kostuen gainean, salmenten gainean edo eragiketen ezaugarrien arabera egokien den magnitudearen gainean kalkulatu. Beharrezkoa izanez gero, bidezko zuzenketak egiten dira baliokidetasuna lortzeko eta eragiketaren berezitasunak aintzat hartzeko.

6) EDUKIA

6.1 Lehenengo Taula: pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak

Eragiketa lotuen eta paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketa eta egoeren aitortzen informatiboa aurkezteko 232 ereduak badu lehen apartatu bat «pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak» bertan aitortzeko. Informazio hori betetzeko garaian, bereizita zehaztu behar dira sarrera eragiketak, batetik, eta ordainketa eragiketak, bestetik, eta haien artean ezin da konpentsaziorik egin, nahiz eta kontzeptu berekoak izan. Pertsona edo entitate lotu bakoitzarekin egin diren eragiketak mota bereko eragiketatan multzokatuta aitortu behar dira, betiere metodo berberarekin baloratu badira. Mota bereko eragiketak balorazio metodo diferenteekin baloratu badira, erregistro diferentetan sartu beharko dira. Sarrera edo ordainketa eragiketa bakoitzerako, informazio hau emango da:

- a) Pertsona edo entitate lotuaren identifikazio fiskaleko zenbakia.
- b) Pertsona edo entitate lotua pertsona fisikoa edo juridikoa den.
- c) Pertsona edo entitate lotuaren deiturak eta izena edo sozietate izena.
- d) Lotura mota, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 42.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, kode hauetako bat adieraziz:



- 01 kodea: entitate bat eta bertako bazkide edo partaideak.
 - 02 kodea: entitate bat eta bertako kontseilari edo administratzaileak.
 - 03 kodea: entitate bat eta bertako bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak, izatezko bikotekideak edo hirugarren mailarainoko ahaideak.
 - 04 kodea: talde bereko bi entitate.
 - 05 kodea: entitate bat eta beste entitate bateko kontseilari edo administratzaileak, baldin eta bi entitateak talde berekoak badira.
 - 06 kodea: bi entitate, baldin eta lehenengoak gutxienez 100eko 25eko zeharkako partaidetza baldin badu bigarrenaren kapital sozialean edo funts propioetan.
 - 07 kodea: bi entitate, baldin eta bertako bazkideek edo partaideek edo haien ezkontideek, izatezko bikotekideek edo hirugarren mailarainoko ahaideek, gutxienez 100eko 25eko partaidetza baldin badute kapital sozialean edo funts propioetan.
 - 08 kodea: Espainiako lurraldean egoitza duen entitate bat eta entitate horrek atzerrian dituen establezimendu iraunkorrak.
 - 09 kodea: Espainiako lurraldean egoitzarik ez duen entitate bat eta entitate horrek lurralde horretan dituen establezimendu iraunkorrak.
 - 10 kodea: talde bereko bi entitate, talde horrek sozietate kooperatiboen taldeen araubidean tributatzen badu.
- e) Probintziaren kodea, pertsona edo entitate lotuaren egoitza Espainiako lurraldean badago, edo egoitza herrialdearen kodea, haren egoitza Espainiako lurraldean ez badago.
- f) Eragiketa mota. Kasu honetan, eragiketa mota identifikatzeko, dagokion kodea jarri beharko da hurrengo zerrendaren arabera:
- 1 gakoa: Salmentak.



- 2 gakoa: Erosketak.
 - 3 gakoa: Maileguak.
 - 4 gakoa: Errentamenduak.
 - 5 gakoa: Erabilera lagapenak.
 - 6 gakoa: Beste zerbitzu prestazio batzuk.
 - 7 gakoa: Beste batzuk.
- g) Diru-sarrera edo Ordainketa idatzi beharko da, eragiketa motaren arabera.
- h) Balorazio metodoa, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 42.4 artikuluan jasotakoaren arabera, kode hauekin:
- 01 kodea: Prezio libre alderagarriaren metodoa.
 - 02 kodea: Kostu gehituaren metodoa.
 - 03 kodea: Birsalmenta prezioaren metodoa.
 - 04 kodea: Emaidza banatzeko metodoa.
 - 05 kodea: Eragiketa guztien marjina garbiaren metodoa.
 - 06 kodea: Oro har onartutako beste metodo batzuk.
- i) Eragiketaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

6.2 Bigarren Taula: Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak, aktibo ukiezin jakin batzuen errentak murrizten diren kasuan (2/2014 FAren 37. artikulua eta 22. xed. irag.).

“Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak, aktibo ukiezin jakin batzuen errentak murrizten diren kasuan (2/2014 FAren 37. artikulua eta 22. xed. irag.)” apartatuak informazio hau jaso behar du:



a) Lehenik, entitate nagusiaren identifikazio datuak (identifikazio fiskaleko zenbakia eta sozietate izena; probintziaren kodea, egoitza Espainiako lurraldean badago, edo egoitza herrialdearen kodea, egoitza hori Espainiako lurraldean ez badago).

b) Gero, eta bereizita pertsona edo entitate lotu bakoitzeko, zer errentak murrizten diren, informazio honekin:

1.— Pertsona edo entitate lotuaren identifikazio fiskaleko zenbakia.

2 — Pertsona edo entitate lotua pertsona fisikoa edo juridikoa den.

3.— Pertsona edo entitate lotuaren deiturak eta izena edo sozietate izena.

4.— Probintziaren kodea, pertsona edo entitate lotuaren egoitza Espainiako lurraldean badago, edo egoitza herrialdearen kodea, haren egoitza Espainiako lurraldean ez badago.

5.— Lotura mota, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 42.3 artikuluan ezarritakoaren arabera. Aurreko apartatuko d) letran ageri diren kodeetatik dagokiona jarriko da.

6.— Eragiketaren zenbatekoa, murriztapena aplikatu aurretik eta balio erantsiaren gaineko zerga sartu gabe.

6.3 Hirugarren eta laugarren taula: Paradisu fiskal gisa sailkatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak

“Paradisú fiskal gisa sailkatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketak eta egoerak” apartatuan honako hau jaso beharko da:

a) Paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten eragiketen lehen koadroari dagokionez:

1.— Erregelamenduz paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo entitateekin egindako eragiketaren deskripzioa (edo haiek egindakoarena), eta herrialde edo lurralde horietan egoitza duten pertsona edo entitateekin zuzenean edo



zeharka egindako eragiketen zerbitzu gastuak, bai eta horietan egindako inbertsioak eta gastuak ere.

2.— Eragiketak zer pertsona edo entitaterekin egin diren edo zeinek egin dituen: izena edo sozietate izena.

3.— Pertsona edo entitatea pertsona fisikoa edo juridikoa den.

4.— Erregelamenduz paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldearen kodea.

5.— Erregelamenduz paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeetatik, zeinetan egin den gastua edo inbertsioa, edo, bestela, zeinetan duen kokatua bere egoitza eragiketak zuzenean edo zeharka egin dituen pertsona edo entitate lotuak.

6.— Aurreko 1. zenbakian aipatutako eragiketa, gastu edo inbertsioei dagokien zenbatekoa, benetako balioaren arabera konputatu behar dena.

b) Aitortzen den epealdiaren amaieran «paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten baloreak edukitzeari» buruzko koadroari dagokionez:

1.— Erregelamenduz paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeekin zerikusia duten egoera mota posibleak, A, B edo C letrak adieraziz, xehetasun honen arabera:

— A gakoa: Erregelamenduz paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldeetan egoitza duten entitateen funts propioak adierazten dituzten baloreak edukitzea.

— B gakoa: Herrialde edo lurralde horietan eratutako inbertsio kolektiboko erakundeen baloreak edukitzea.

— C gakoa: Herrialde edo lurralde horietako bigarren mailako merkatuetan kotizatzeke onartuak diren errenta finkoko baloreak edukitzea.



2.— Entitate partaidetua edo baloreak jaulkitakoa. Entitate partaidetuaren izena edo sozietate izena jarriko da egoera A edo B motakoa denean, eta baloreak jaulki dituen entitatearena C motakoa denean, aurreko zenbakian adierazitakoaren arabera.

3.— Erregelamenduz paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldea, ondoren zehazten denaren arabera:

— A gakoa: Entitate partaidetuaren egoitzako herrialdea, baldin eta aurreko 1. zenbakiko zutabearen A mota adierazi bada.

— B gakoa: Entitate partaidetua eratu den herrialdea, baldin eta aurreko 1, zenbakiko zutabearen B mota adierazi bada.

— C gakoa: Zer herrialde edo lurraldetan dauden kotizatze onartuta baloreak bigarren mailako merkatuetan, baldin eta aurreko 1. zenbakiko zutabearen C mota adierazi bada.

4.— Erregelamenduz paradisu fiskal gisa kalifikatutako herrialde edo lurraldearen gakoa.

5.— Baloreen eskurapen balioa. Eskurapen balioa konputatuko da, noiz eskuratu diren kontuan hartu gabe.

6.— Baloreen partaidetza portzentajea, baldin eta aurreko 1. zenbakiko zutabearen A edo B mota adierazi bada.

6.4 Erregelak

Dagokion informazioa ematerakoan, erregela hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Kontabilitateko gastu edo sarrerak dakartzaten eragiketetan, eragiketaren kontabilitate sortzapenaren irizpidea aplikatuko da, kobrantzaren edo ordainketaren diru korrontea noiz gertatu den kontuan hartu gabe.
- b) Kontabilitateko gastu edo sarrerarik ez dakarten eragiketetan, eragiketa noiz egin den hartuko da kontuan, sortutako diru korrontea noiz gertatu den aintzat hartu gabe.



c) Ekitaldi batean baino gehiagotan luzatzen diren eragiketetan, eragiketaren balioa 36.000 eurotik gorakoa bada eta eragiketa indarrean badago hainbat ekitalditan, eragiketa egin den ekitaldiko informazio gehigarrian bakarrik eman behar da informazioa.

Denboran zehar irauten duten zerbitzu prestazioen kasuan, 36.000 euroko zenbatekoa konputatzeko eta zein unetan aitortu behar diren den zehazteko, eragiketak ekitaldi bakoitzean izan duen balioa hartu beharko da kontuan.

* 232 ereduarekin batera badago egindako operazioa egiaztatzen duten dokumentuak eta merkatuko bere balio arrunta eranstea aukera.

II. OHIKO GALDERAK

“Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak” koadroari buruzkoak

1. DIBIDENDUEN BANAKETA

- **Dibidenduen banaketa 232 ereduan aitortu behar al da?**

Dibidenduen banaketa diruzkoa denean, ez da beharrezkoa 232 eredua betetzea. Ez denean diruzkoa, ordea, eragiketa horren berri eman behar da 232 ereduan, Foru Aginduak ezarritako gutxieneko kopura gainditzen bada -36.000 euro-. Izan ere, azkeneko kasu horretan, jasotako ondasuna balio egiaztapenaren mende legoke Foru Arauko 40 artikulua araberera.

2. MAILEGUAK

- **Zein da mailegutan kontuan izan beharreko kopurua?**

Zein mailegu aitortu behar den erabakitzeke eta mailegu horrek Foru Aginduak ezarritako gutxieneko kopurua (36.000 euro) gainditzen duen ala ez jakiteko, kontuan izan behar den kontzeptua ez da maileguaren kapitala, ezta printzipal eta interesen



batura ere. Maileguaren kopurua finkatzen duena bere kontraprestazioa da, hau da, maileguaren epe osoko interes pilatuak.

Interesak 36.000 eurokoak baino handiagoak badira, 232 ereduak bete behar da. Aitortu beharreko ekitaldian, maileguaren mugimenduen (eratzte, amortizatze...) eta interesen berri eman behar da bakarrik.

- **Zein da maileguaren epe osoa eta bere interes pilatuen zenbatekoa?**

Maileguaren epea eta haren interes pilatuen kopurua aldeek adostutakoa izango da. Eragiketa lotua izanik, epe eta kopuruaren zenbatespena merkatuko irizpide onargarri eta arrazoizkoetan oinarritu behar da.

3. ABALAK

- **Abalen berri eman behar al da 232 ereduan?**

Eragiketa lotua bada eta bere kontraprestazioak Foru Aginduak ezarritako gutxieneko kopurua (36.000 euro) gainditzen badu, 232 ereduan aitortu behar da. Maileguen antzera aitortzen dira.

4. SOLDATA ETA LANSARIAK

- **Sozietatean (SA, SL, SAL) lan egiten duten bazkideen soldatak aitortu behar al dira?**

Bazkideen soldatak 232 ereduan aitortu behar dira ondoko bi baldintzak betetzen badira: 1) 36.000 euroko merkatu balioa gainditzea; eta 2) Foru Arauko 43.3 artikulua araberak, bazkidearen partizipazioa %25 edo handiagoa izatea. 190 ereduan kopuru horien berri ematen bada ere, bertan ez dira 232 ereduan zehazten diren hainbat alderdi aipatzen (hala nola, soldatak baloratzeko metodoa).

- **Administratzaileen soldata eragiketa lotua al da?**



Foru Arauaren 42. artikulua dioenez, pertsona edo entitate lotuak dira entitate bat eta haren kontseilari edo administratzaileak, beren eginkizunak betez jasotzen dituzten ordainsariei dagokienez izan ezik.

Araudiak bereizi egiten ditu, alde batetik, administratzaile karguari dagozkion funtzioak, eta bestetik, kontratuetatik eratorritako goi-zuzendaritzako funtzio eta gainerako zereginak.

Administratzaile karguari dagozkion funtzioak eragiketa lotuen esparrutik kanpo daude. Gainerako zereginengatik jasotako ordainsariak (goi zuzendaritzakoak edo eta bestelakoak), aldiz, eragiketa lotuak dira eta merkatu balioaren arabera baloratuko dira. Beraz, gainerako funtzio horiengatik jasotako ordainsarien berri eman behar da 232 ereduan, 36.000 euroko kopurua gainditzen bada.

- **Kooperatiban lan egiteagatik bazkideek jasotzen dituzten ordainsariak 232 ereduan aitortu behar al dira?**

Foru Arauaren 42. artikuluko 3 apartatuak dioenez, lotura bazkide edo partaideen eta entitatearen arteko harremanaren arabera definitzen bada, partaidetzak % 25ekoa edo handiagoa izan beharko du.

Hortaz, partaidetza % 25ekoa edo handiagoa bada, eragiketa lotua izango da eta haren berri eman beharko da 232 ereduan ordainsari osoa 36.000 euroko merkatu balioa baino handiagoa denean.

5. DIRU-LAGUNTZAK

- **Udal batek SL/SA batean parte hartzen du. Udalak ematen dizkion diru-laguntzak aitortu beharrekoak al dira?**

444/2018 Foru Arauaren 2. artikulua dioenez, behartuta daude 232 eredua aurkeztera eta eragiketa lotuekin zerikusia duten eragiketa eta egoeren informazioa ematera sozietateen gaineko zergaren zergadunak eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak.



Beraz, kasu honetan eta dago informatu beharrik, 2/2014 Foru Arauaren arabera tokiko erakundeak salbuetsita baitaude sozietateen zergan (hau da, toki erakundeak sozietateen zergako zergadunak dira baina salbuetsita daude).

6. BAZKIDEEN EKARPENEKIN EGINDAKO KAPITALAREN HANDITZEA

Foru Arauaren 42. artikuluko 3 apartatuak dioenez, lotura bazkide edo partaideen eta entitatearen arteko harremanaren arabera definitzen bada, partaidetzak % 25ekoa edo handiagoa izan beharko du.

Hortaz, egindako ekarpena (kapitalaren handitzea) %25ekoa edo handiagoa bada, edo eta ekarpena egiterakoan bazkideak jada % 25eko partaidetza badu, eragiketa hori lotua izango da eta haren berri eman beharko da 232 ereduan 36.000 euroko merkatu balioa gainditzen denean.

7. LOKAL BATEN ERRENTAMENDUA

- **Bazkide baten ezkontideak sozietateari lokal bat eman dio errentan 36.000 euro baino gehiagorengatik. 232 eredua bete behar al da?**

Foru Arauaren 42. artikuluko 3. apartatuak dionenez, pertsona edo entitate lotuak izango dira entitate bat eta haren bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak, 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteko bikotekideak, edo 3. mailara arteko ahaidetasun harreman batek lotutako pertsonak.

Kasu honetan, beraz, eragiketa lotu baten aurrean gaude, bazkide baten ezkontideak ematen baitu errentan lokala.

Ondorioz, eragiketa lotua izanik, lokal horren errentamenduari merkatuko balioa eman behar zaio eta haren berri eman behar da eragiketaren zenbatekoak 36.000 euroko merkatu balioa gainditzen duenean.



8. BAZKIDEEI ONDASUNAK ESKUALDATZEA ENTITATEA DESEGITEN DENEAN

Foru Arauaren 40. artikuluari jarraiki, eragiketa hori balio egiaztapenaren mende dago. Hortaz, bere kopurua 36.000 euroko merkatu balioa baino handiagoa bada, 232 ereduia bete beharko da.

“Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak, aktibo ukiezin jakin batzuen errentak murrizten diren kasuan (2/2014 Fako 37. art eta 22. Xed. Irag.” koadroari buruzkoak

1. AKTIBO EZ-MATERIALAK LAGATZEA

232 ereduia behar da entitate lotuekin egindako eragiketen ondorioz zergaren Foru Arauak 37. artikuluan xedatutako murrizpena aplikatzen denean (“Murrizpena jabetza intelektuala edo industrialia ustiatzeagatik”). Kasu horretan, “Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak, aktibo ukiezin jakin batzuen errentak murrizten diren kasuan” koadroa bete behar da.

Informazio hori zenbatekoa edozein dela ere eman beharko da. Gainera, informazio betebehar horretatik salbuesten duten arrazoiak, 444/2018 Foru Aginduko 1.2 artikuluan jasotakoak, ez dira inola ere aplikagarriak izango.